



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK**HE1**
(B2 maila)**PROBA IDATZIA**

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.

A eredua

IRAKURMENA

Izokinek Elizondoraino iristea lortu dute, bideko oztopoak kenduta

Bidasoa ibaiko izokinak aspaldi galdutako txokoetara itzuli dira azken bi urteotan, beren zikloa burutzera. Iaz eta aurten, udaberrian eta udazkenean, hainbat arrain markatu dituzte Nafarroako Ingurumen Departamentuko adituek, eta, haien bideari jarraituz, Elizondoko Txokotoko presaraino ailegatu dira izokinak.(11).... egin dute oztopo hori ere, eta presatik gora iritsi dira, gutxienez, markatutako bi izokin. Azaroko euria izan dute(12).... , batetik; bestetik, azken hamar urteotan ibaiaren bidean dauden oztopoak kentzeko egindako ahalegina.

Azken urteotan, *Life Irekibai* proiektuaren barruan egin dituzte Bidasoko presak(13).... botatzeko lanak. Ibaiaren beheko aldean,(14).... , Endarlatsakoa eta Berakoa bota zituzten 2016an. «Izokin guztiek pasatu behar dute handik, eta, zalantzarik gabe, oztopo horiek kendu izanak(15).... lagundu die bidean gora jarraitzen. Lehen, izokin bakar batzuk ailegatzeko ziren Bertizerraino, gehienez ere.(16).... , markatutako hemeretzi izokinetatik hamaika Doneztebetik gora dira; haietako hiru ailegatu dira Elizondora», nabarmendu du Ingurumen Departamentuko biologo Jose Ardaiz Ganuzak.

Biologoak Bidasoan egiten ari diren lanen eragina(17).... utzi du. «Azken 40 edo 50 urteotan egin dira izokin-kumeak ibaian askatzeko saioak, baina horrek ez du ekarri(18).... populazioak gora egitea; oztopoak kentzeko(19).... eragin du, ordea, Bidasoan gora egiten duten izokinen kopurua handitzea», esan du Ardaiz Ganuzak.

Gobernua 2007an hasi zen Bidasoko presa eta gainerako oztopo nagusiak kentzen, edo, gutxienez, arrainek gaindi(20).... moldatzen. «Ordura arte, urtean batez beste 200-300 izokin ari ziren ibaian sartzen; azken hamar urteotan, 400 izokinekoa da(21).... ».

Bost(22).... izaten ohi da izokinen zikloa. Jaio eta gero,(23).... diren errekan bi negu ematen dute, eta, ondoren, Ipar itsasorako bidea hartzen dute. Itsasoan beste negu bat edo bi ematen dute erreka itzuli aurretik. Itsasoan hiru negu egoten diren izokinak ere badira, baina gutxi dira. Izan ere, errekan, arrautzak jarri eta gero, izokin gehienak(24).... egiten dira. Bakar batzuek, hala ere, itsasorako bidea egiten dute bigarren.

Bide hori, berez, zaila da izokinentzat. Pilatutako koipe guztia baliatzen dute sortu ziren erreka ur-emariaren(25).... . Azken(26).... ematen dute zeregin horretan: belaunaldi berria sortzen hiltzen dira. Egin behar duten ahalegina are handiagoa da bidean gizakiak eraikitako oztopoekin topo egiten dutenean. Eta Bidasoan(27).... dira ur-emaria erregulatzeko egindako azpiegiturak. Sunbilla eta Doneztebe(28).... , batez ere. «Ibaiaren zati horretan ura ez doa bere bidetik: erretenetatik doa, edo urmaeletan bildua dago», erran du Ardaiz Ganuzak.

Horrek, noski, ez dio onik egiten izokinari. Bere bidean(29).... du ur bizia eta garbia. «....(30).... biltzen denean, ura ez da behar bezainbeste berritzen, eta berotu egiten da. Sedimentuak, gainera, pilatu egiten dira». Bidasoan gorago eginez, hain zuzen ere, ur garbiagoa aurkitzen dute izokinek, oxigeno gehiagorekin. Gainera, arrautzak jartzeko ohi baino toki gehiago aukeratu izanak populazioari(31).... egiten dio: «Toki gutxi direnean, denak espazio berean pilatzen dira, eta uholdeak gertatuz gero, adibidez, denak pairatzen dituzte kalteak; toki anitz egonda, Donezteben bat-batean gertatzen ahal den ekaitz batek, akaso, hango izokinei eraginen die, baina ez, ordea, Baztan aldean direnei».

«Gorago ailegatu da izokina Bidasoko arroan,(32).... kentzeko egindako urratsei esker. Baina oraindik ere lan handia da egiteko. Oztopo anitz da beheara botatzeko», Ardaiz Ganuzak nabarmendu duenez. Nagusietako bat da Iruritzako Oharrizko presa, Elizondotik bost kilometrora. Iaz,(33).... , Oharrizko presa hori izan zen markatutako izokinen muga.

A eredua

lazko eta aurtengo dinamiketan aldea sumatu dute Ingurumen Departamentuko adituek. «Iaz, nahiko mantso egin zuten bide hori; aurren, askoz ere(34).... aritu dira». Azaroko euriak eman die Bidasoan bide hori egiteko aukera izokinei, Ardaiz Ganuzak aipatu duenez. «Behar zuten ur-emia izan dute; ez gehiegi, ez gutxiegi». Izokinek ezustean harrapatu zituzten(35).... , Elizondoko Txokotoko presara ailegatu zirenean, hain zuzen ere. «Zikina zela ohartu, eta korrika eta presaka garbitu genuen, izokinek bidetari jarraitzeko», kontatu du biologoak.

Eduarne Elizondo, Berria, 2019ko abenduak 7 (moldatua)

Erantzun zuzenei dagozkien letrak erantzun-orrian markatu behar dituzu.

11	12	13	14	15
a. Txikitu b. Gainditu c. Ikusi d. Ospatu	a. bitarteko b. errekan c. adiskide d. lagun	a. behera b. lurrera c. zakarretara d. uretara	a. indarrez b. adibidez c. baita d. derrigorrez	a. bai b. doi-doi c. asko d. gutxi
16	17	18	19	20
a. Aurren b. Gero c. Gehienez d. Horregatik	a. poz-pozik b. ezkutuan c. ezerezean d. agerian	a. abereen b. animalion c. jendearen d. kumeon	a. asmakariak b. indarrak c. premiak d. lanak	a. zitzaten b. daitezen c. bitez d. ditzagun
21	22	23	24	25
a. arrantza b. poltsa c. batezbestekoa d. elkarteak	a. urtez b. urtekoa c. urteetakoa d. urtean	a. hezi b. igaro c. sartu d. sortu	a. alde b. isildu c. hil d. ugaltu	a. gora b. txokoan c. alde d. bila
26	27	28	29	30
a. hatsa b. kolpea c. hazioa d. taupada	a. ez b. berriak c. asko d. urri	a. artean b. barrena c. zehar d. bitartez	a. isuri b. behar c. baztertu d. ahaztu	a. Multzoan b. Urmaeletan c. Familian d. Lokatzetan
31	32	33	34	35
a. mesede b. berdina c. kalte d. eragin	a. zuhaitzak b. zubiak c. oztopoak d. etxeak	a. aldiz b. hala ere c. ondorioz d. hain zuzen ere	a. mantsoago b. adiago c. azkarrago d. zoliago	a. bazterrak b. adituak c. garbitzaileak d. herritarrek

A eredua

AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, Ane Irazabal kazetariaren grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu; gero, galderen erantzuna markatu behar duzu erantzun-orrian.

1. atala

1.- Zer antzematen da Grezian?

- a) Hotel modernoak itxi direla.
- b) Erreskatea behar dela.
- c) Zulo beltzak eratu direla.
- d) Ekonomia hobetu dela.

2.- Zerk hunkitzen du esataria?

- a) Hango errealitateak.
- b) Hiri ezkutatuak.
- c) Turista kopuruak.
- d) Metroko sarrerak.

3.- Panepestimio plazan...

- a) Ierokatuta daude hainbat gazte.
- b) Alexis Tsiprasen garaikurra dago.
- c) zaintza-bideokamerak daude.
- d) unibertsitatea hutsik dago.

4.- Zertan ari dira izkinako gazteak?

- a) Kamisetak tolesten.
- b) Paparaziei begira.
- c) Txandaren zain.
- d) Enpresariak zelatatzen.

5.- Zer jarrera dute herritarrek?

- a) Erritualak egiten dituzte.
- b) Begiekin jarraitzen diete.
- c) Ez diete kasurik egiten.
- d) Paparazzi lana egiten dute.

2. atala

6.- Nolako begirada du jonkiak?

- a) Hotza.
- b) Tristea.
- c) Galdua.
- d) Gogorra.

7.- Zer gertatu da azken urteotan?

- a) Krisi paraleloa izan da.
- b) Droga merkea hartzen da.
- c) Estatistika asko egin da.
- d) Kokaina dibertitzeko erabili da.

8.- Atenaseko errealitatearen berri izateko, zer behar da?

- a) Estatistika gehiago.
- b) Krisia ezagutu.
- c) Bertaratu.
- d) Drogaren mundua ezagutu.

9.- Zer dira jonkiak Atenasen?

- a) Pribatutasunaren adierazgarri.
- b) Kontu exotikoen miresgarri.
- c) Euskal Herriko bereizgarri.
- d) Paisaiaren osagarri.

10.- Zer egin du kazetariak?

- a) Haiengana hurbildu.
- b) Bakean utzi.
- c) Zalantzan gelditu.
- d) Gauean itzuli.

Iturria: Berria, 2019-07-17



A eredua

HE1 PROBA IDATZIA
ERANTZUN-ORRIA

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AHOZKOAREN ULERMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

IRAKURMENA

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30

31	32	33	34	35

Idatzi zure kodea:										
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IDAZLAN LUZEA-HE1

Aukeratu gai hauetako bat. Gutxienez 175 hitz dituen idazlana egin behar duzu.

Etxeko heziketa. Gaur egun zail egiten da hainbat ikaslerekin lan egitea. Izan ere, etxe askotan ez dago ohiturarik seme-alabei mugarik jartzeko. Gaiaren inguruan artikulua idatziko duzu, klaustroan egingo duzuen solasaldia bideratzeko.

Hizpide hauek garatu behar dituzu:

- Azaldu zein diren jarrera desegokiak eta ondorioak.
- Aztertu jarrera horien arrazoiak.
- Proposatu gurasoekin adosteko irtenbideak.

Auto berria. Garai honetan zaila da erabakitzea nolako autoa erosi: diesela, gasolina, hibridoa ala elektrikoa. Guztiek dituzte alde onak eta txarrak. Idatzi artikulua bat herriko aldizkarian argitaratzeko. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Aipatu ohiko aukeren eta aukera berrien arteko aldeak (kutsadura, prezioa, autonomia...).
- Azaldu zer aldaketa datorren autoen mundura.
- Eman zure iritzia.

10.....

20.....

40.

[illegible]

ERANTZUN ZUZENAK

HE1: Ahozkoaren Ulermena (Atenaseko xiringak)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
D	A	A	C	C	C	B	C	D	B

HE1: Irakurmena (Izokinak Elizondoraino)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	D	A	B	C	A	D	B	D	A

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
C	B	D	C	D	A	C	A	B	B

31	32	33	34	35
A	C	D	C	B